



Kosmodisea 2007-2008ko Ikono Planetako irabazleak

Basakaitz Herri Ikastetxea (Aizarnazabal), Ikasbide Ikastola (Donostia), San Vicente de Paul Ikastetxea (Irun), Lasarte-Usurbil BHI eta IEFPS Bidasoa (Irun) ikastetxeek irabazi dute Kosmodisea 2007-2008ko Ikono Planeta.

Ikus Basakaitz Herri Ikastetxearen lana

Ikusi Ikasbide Ikastolaren lana

Ikus San Vicente de Paul Ikastetxearen lana

Ikus Lasarte-Usurbil BHIren lana

Ikus IEFPS Bidasoaren lana

Aizarnazabalgo Basakaitz Herri Ikastetxeak lortu du lehen saria Lehen Hezkuntzan (Neo Sistema – 1, 2. eta 3. mailak), irudiz egindako lan baten bitartez. Bertan, animalien migrazioak nolakoak diren eta zer diren erakusten dute, kurriloen kasuan arreta berezia jarrita.

Bestalde, Ikasbide Ikastolak (Donostia) ere, Fisio Sistemari dagokion kategorian (4., 5. eta 6. mailak) lehen postua lortu du Lehen Hezkuntzan. Maila honetan, parte hartzen zuten taldeek, energiaren erabilarekin lotutako irudien muntaia egin behar zuten. Era berean, taldeek erakutsi behar zuten guztiok zerbait esan eta egiteko gai garela energia-kontsumoa murrizteko.

Irungo San Vicente de Paul ikastetxeak lortu du puntu-kopuru handiena Bigarren Hezkuntzan (Glos Sistema), hirian eta landan eguneroko jarduerak nolakoak diren alderatzen saiatzen den lan baten bitartez.

Bestalde, Lasarte-Usurbil BHIk irabazi du Batxilergoari dagokion kategorian (Logo sistema), espazio sozialen inguruan eta espazio horiek gure gizartearen osaeran duten garrantziaren inguruan egindako irudien muntaia esker.

Azkenik, Heziketa Ziklotan (Tékhne Sistema), Irungo IEFPS Bidasoak irabazi du "Bakarrik idazten duen boligrafoa" gaia irudien bitartez egindako aurkezpenarekin. Boligrafoak bere barruan ordenagailu txiki bat du. Ordenagailu horri esker, boligrafoaren memorian alde zuzenetik gordetako bera bakarrik idazteko gai izango litzateke.
